



# Bizitza hari batean

Periferiko europar oinetakoak ekoizten duten pertsonen lan baldintza gogorrak (Albania, Bosnia-Herzegovina, Mazedonia, Polonia, Errumania eta Eslobakia).


Askotan, mendebaldeko Europako kontsumidoreentzat “Europar Ekoiztuta” etiketak Asiako herrialdeetan baino lan baldintza hobeekin ekoiztuta dagoela esan nahi du. Txosten honek beti horrela ez dela frogatzen du, soldata oso bajuak eta lan baldintza gogor endemikoak munduko produkzio kate guztietan ematen bait dira. Soldata bajuak dituzten europako herrialdeetako oinetako eta jantzigintza industriak, soldata eskasa eta lan baldintza txarreatatik dira ezagunak.

Soldata bajuko europako sei herrialde ekoizle ikertu ditugu. Munduko oinetako ekoizpen kate globalen, soldata bajuko Europako herrialdeak barne, eta Asia eta Europako oinetako ekoizpen artean lotura sendoak daudela igarri genuen, bakoitzak papera ezberdina betetzen du.

Adibide gisa, Albania, Bosnia- Herzegovina, eta Mazedoniako Errepublikak aukeratu genituen. Europar herrialdeak izanik, eta EBtik kampo oinetakoak ekoiztu arren, batasuneko fabrikazio eta esportazioaren zati handi bat irudikatzen dutelako. ELGaren arabera, Albania, Bosnia-Herzegovina eta Mazedonia “garapenerako bidean” dauden herrialdeak dira. Polonia, Errumania eta Eslobakia oinetako industria garran-

tzitsua duten Europako herrialdeak izateagatik aukeratu ziren. Albanian, Bosnia-Herzegovinan, Mazedonian, Errumanian eta Eslobakian, arropa eta oinetako ekoizpena Hobetze Pasiboko Erregimenaren bidez egituratzen da. Europar Batasunak 70. hamarkadan sortutako merkataritza sistema da. Salgaiak hiru-garren herrialde batera esportazean datza, han muntaia eta akabera egin dezaten, gero inongo muga-zergarik gabe, berri- inportatzeko.

Sistema honek, Mendebaldeko Europar kalitatezko lanbideak mantentzeko balio du. Aldi berean, soldata bajuak dituzten herrialde gertuenetara lan fisiko intentsiboak esternalizatzen direlarik. Duela asko frogatuta dago TPP sistemak, langile, enpresa eta tokiko ekonomiak irtenbiderik gabe uzten dituela. Sistema hau alde batera utzita, Europar Batzordeak, Nazioarteko Moneta Funtsak (NMF), Mundu Bankuak europako herrialde postsozialistak beste bideen bitartez presiontzen dituzte: kredituak lortzeko akordioen bitartez, soldata igotzea zailtzen dituzten politikak inposatzen dituzte. Horrela, soldata politika hauekin, Europar soldata bajuko zonaldeak egotea posible egiten dute.



Gure tokiko ikerketetan 179 langile elkarrizketatu genituen, oinetako 21 fabrika ezberdinetan. Enpresen webguneen arabera, eta langileek esandakoaren arabera, fabrika guzti hauek oinetako marka eta minorista ezagunentzat ekoizten dute, haien produktuak EBko merktuan saltzen dituztenak. **Zara, Lowa, Deichmann, Ara, Geox, Bata y Leer & Shuh AG**, adibidez. Baita ere **CCC Shoes and Bagsen** poloniar filialak, eta **Ecco, Rieker eta Gaboren** eslobakiar filialak ikertu genituen. Langileriaren arabera arazoa sistemikoa da, gure esperientziak baieztatzen du hori.

Sei herrialde hauetako langileriak **soldata oso bajuak jasotzen ditu, haien eta beren familien beharrak asetzeko nahikoak ez direlarik**. Ikertutako herrialdeetan gutxieneko soldatarekin langileriak ezin du beren eta familien bizi maila duina bermatu, eta prekaritatearen aurka borrokatzeko ahalmen gutxi dago. **Ikertutako herrialde europear guztietan, soldata duintan baten eta legezko gutxieneko soldataren arteko tartea, Txinan baino sakonagoa da (eta kasu batzuetan, askoz handiagoa gainera)**.

Lan gastu bajuak, hau da, soldata prekarioak, izugarriko presioa dira eta goraka doaz gainera. Elkarrizketatutako langile guztiek aipatu zuten soldata bajuak direla gehien kezkatzen diena. **Ordaindu gabeko jardunaldiz kanpoko orduei buruz, urteko oporrak osorik hartzeko zailtasunei buruz (eskubidea dutelarik), gizarte-segurantzari ordaindu gabeko kotizazioei buruz, lantegien muturreko tenperaturei buruz, hala nola, sustantzia toxikoen presentziarengatik osasunarenganako arriskuei buruz jakinarazi ziguten langileek**. Langileriak antolatzeko beldurra dauka eta baliozko bozeramailerik ez daukate, gainera.

Lan arrisku larria sortzen du destaju lanak, baita lanorduei eta soldatei dagokionez ere. Hori iradokitzen du lekuan egindako lana. Sistema honekin, produkzio helburuen arabera kobratzen du langileriak. Elkarrizketatuek kuotak betetzen saiatzeak estres izugarria sortzen duela azaldu zuten, ordaindu gabeko lanez kanpoko orduak egitea eragiten baitu. **Segurtasun neurriak betetzeko zailtasunak ematen dira sistema honekin, zeinekin pieza kopuruaren arabeko tarifa bat jasotzen da**. Langileek eskularruak erabiltzen ez dituztela onartu zuten, produktibitatea jetsiarazi baitiete eta, beraz, soldata bajuagoak jasotzea.

Lanegun arrunta baten truke **gutxieneko soldata jasotzen ez dutenen kasuak** ematen dira Albanian, Bosnia-Herzegovinan, Mazedonian eta Errumanian. Albanian, elkarrizketatutako **hiru pertsonetatik batek** ez du legezko gutxieneko soldata jasotzen, baita lanordu estrak eta bonifikazioak jasota ere. Ikertutako sei herrialdeetatik bostetan, pertsona hauek, batzuetan – baita askotan ere- larunbatetan ere lan egin behar dutela, baina ordu estrak bezala onartzen ez

“**BAI NIRE EMAZTEAK, BAI NIK, LANTEGIAN EGITEN DUGU LAN. LANA AURKITU IZANAZ POZIK GAUDE BAINA LANTEGIKO BI SOLDATETAKIN EZ DUT USTE GURE SEME-ALABAK HAZITZEKO GAI IZANGO GARENIK. GURASO ETA FAMILIAK EZIN GAITU LAGUNDU, BERAZ MISERIAZKO SOLDATA HONEN MENPE GAUDE. HERRITIK ALDE EGIN ETA HIRIRA JOATEA NAHI GENUEN GURE BIZITZA HOBETZEKO, BAINA SOLDATA EZ DA NAHIKOA HIRIAN ERRENTA BAT ORDAINTZEKO**” Errumaniako langilea

direla azaldu zuten. Larunbatetan lan egitea araua bihurtu da Albanian, salbuespena izan ordez.

Ezin izan genuen jaso zapatagintza industriari egingo dako lan ikuskatzailetzari buruzko, eta haien emaitzen informaziorik. **Elkarrizketatuen arteko inork ez zuen lan ikuskatzailetzatan parte hartu.** Hala ere, Mazedoniako, Poloniako eta Eslobakiako langileriak ikuslariak ikusi zituzten lantegian eta zuzendaritzak, jakinaren gainean egonda, ikuskatzailetza prestatua zeukala zirudiela azaldu zuen. **Albania, Bosnia-Herzegovina eta Errumaniako langileriak ez zen segurtasun eta lan osasuneko formakuntzatan egon.** Horrela, oinetako industriari dauden osasunerako arrisku ugariekin, ikuskatzailetza sistemak ez du funtzionatzen Balkanetako lantegietan.


Lekuko lanek emandako datuek eta bestaldeko estadistikek, **generoaren arabera diskriminazioa** badagoela eta emakumeek balio bera duten lanengatik gutxiago kobratzen dutela, adierazten digute. Emakumeek baldintza pobreetatik ihes egiteko gaitasunik gabe egon ohi dira eta ez dute lan alternatibarik aurkitzen. Miseriazko soldatek indarkeria estrukturala eta ekonomikoa jarduten dute langileengan, eta hare gehiago emakumeengan. Menpekotasun kontzeptua da gakoa, ez bakarrik ekoizpen herrialdearentzat bere osotasunean eta bertan dauden ekoizleentzat, baita eta batez ere lan baldintza txarretan egon arren beren lanean jarraitzeko behartutak dauden milaka emakumeentzat. Miseriazko soldatek, batez ere emakumeengan, karga

“EZ DAUKAT DENBORARIK NIRETZAKO. LANETIK BUELTAN, ETXEAZ, SEME-ALABEZ ETA ANIMALIEZ ARDURATU BEHAR NAIZ. IGANDEA DA NIRE EGUN LIBRE BAKARRA DESKANTSATZEKO, BAINA NORMALEAN FAMILIARENTZAT SUKALDATU BEHAR DUT, HURRENGO ASTERAKO. NEKE EGINDA NAGO BETI” Emakumezko lanigle errumaniarra

bikoitza eta hirukoitza sortarazten duen pobrezia gainditzeko, estrategiak agertzea ere eragiten dute. Mazedonian, adibidez, lantegietako lanaz gahin, biziraupeneko nekazaritzaz ere bizi behar direla azaldu zuten langileek. Errumanian, beren senarrek, Mendebaldeko Europar soldata baje truke egonaldiak egin behar dituztela esan zuten emakumeek, tximinia berotzeko zura erosi ahal izateko. Amek, hilabeetan zehar, bakarrik hazi behar zituzten seme-alabak. Izozkailu bat erosteko, askok, beren soldataren erdia mailegua ordaintzeko erabili behar izaten dute.

Ikertutako herrialdeen gobernuak batez ere Balkanetakoek enpresen aldekoa den ingurumena sortarazten dute eta arropa eta zapatagintza industria indartzeko laguntzak ematen dituzte. Bitartean, lan baldintzak eta gutxieneko soldatak izoztutak diardute. Europako Batzordea eta Nazioarteko Moneta Funtsak (NMF) garrantzi handia dute, maileguak baldintzatzen

## GUTXIENEO SOLDATA ETA BALIOZTATUTAKO SOLDATA DUINAREN ARTEKO TARTEA



■ Oinetako industriaren legezko gutxieneko soldata (netoa) (2016/01/01)

■ Iau kideko familia batentzako duinezko gutxienezko soldata (elkarrizketatutako pertsonen arabera)



baituzte, soldata politika murriztaileekin disziplina fiskala lortzeko heburuarekin. Inposatutako neurri hauek, sektore guztietako soldatetan presio handia jarduten dute, bereziki gutxieneko soldata ipintzerakoan. Gutxieneko soldata eta bizi kostearen arteko tartea handitzea eragiten dute. Momentuz, EBak ez du Europako langileek pobreziaz babesteko gutxieneko soldata politikarik ezarri.

Oinetako eta larru industrien lanpostuen sorkuntzarako motore garrantzitsuak dira Europan, 300.000 lanpostu sortzen dituztelarik eta EBeko 28 estatu kideetan daudelarik. Ikertutako sei herrialdeetan (Albania, Bosnia-Herzegovina, Mazedonia, Polonia, Errumania eta Eslovakia) sektoreak 120.000 langile

ditu (erregistratutakoak). Lan baldintza onak eta soldata duinak Europako gizarte eskubideen zutabea dira, horrela onartu zutelarik Europako Batzordeko presidentek, presidente ordeak eta Gizarte Politiken eta Enplegu komisarioak. "Europa 2020, EBeko estrategia, hazkuntza zentzudun, integratzaile eta jasangarri batentzako"ko bost helburuetako bat, pobrezia-aren pean bizi diren pertsonak gutxienez 20 milioietan gutxitzea da 2020.urterarte. Gutxieneko soldatari buruzko politika, soldata duin bat ordaintzean oinarrituta, arropa eta oinetako industrian lan egiten duten 2 milioi pertsoneri eta haien familiei pobreziatik ateratzen lagunduko zien Europako ekialdean, erdialdean eta hegoaldean.

#### OINETAKOEN EKOIZPENA (2014)



#### OINETAKOEN KONTSUMOA (2014)



#### EUROPAKO OINETAKO EKOIZPENA



ITURRIA: behe oharren 1.a eta 7.a

#### GUTXIENENKO SOLDATA ETA BALIOZTATUTAKO SOLDATA DUINAREN ARTEKO TARTEA

	Oinetako industriaren legezko GUTXIENENKO SOLDATA (NETOA) (2016/01/01)	ikertutako herrialdearen BATAZ BESTEKO SOLDATAREN %60A (NETOA)	4 kidez osatutako familia bateko OINARRIZKO EROSKETA SASKIA, DATU OFIZIALEN ARABERA (2015)	4 kideko familia batentzako GUTXIENENKO SOLDATA DUINA elkarriketaturako pertsonen arabera
<b>ALBANIA</b>	<b>140 €</b>	<b>169 €<sup>8</sup></b>	<b>ez dago daturik</b>	<b>588 €</b>
<b>BOSNIA-H. (RS)</b>	<b>164 €</b>	<b>257 €<sup>9</sup></b>	<b>933 €<sup>10</sup></b>	<b>859 €</b>
<b>MAZEDONIA</b>	<b>145 €</b>	<b>220 €<sup>11</sup></b>	<b>479 €<sup>12</sup></b>	<b>726 €</b>
<b>POLONIA</b>	<b>318 €<sup>13</sup></b>	<b>392 €<sup>14</sup></b>	<b>799 € (2014)</b>	<b>1000 €</b>
<b>ERRUMANIA</b>	<b>156 €<sup>15</sup></b>	<b>166 €<sup>16</sup></b>	<b>736 €<sup>17</sup></b>	<b>706 €</b>
<b>ESLOBAKIA</b>	<b>354 €</b>	<b>468 €<sup>18</sup></b>	<b>517 €<sup>19</sup></b>	<b>1360 €</b>
<b>TXINA (Dongguan)</b>	<b>213 €</b>			<b>614 €</b>

## Gomendioak:

### Gobernu nazional guztiak

- I. Lan legeria betearaztea, legezko gutxieneko soldatari dagokionez, lanegunez kanpoko orduetako dagokionez, jai egunei dagokionez eta osasun eta segurtasunari dagokionez, konkretuki. Erakunde ofizialak indartzea, lan ikuskatzailatza adibidez, Lanaren Nazioarteko Erakundearen 81. hitzarmenaren arabera eta lan legedi nazionalen arabera.
- II. Gutxieneko soldata bat finkatzea bizi kostearen arabera. Lehenengo pausua, gutxieneko soldata igotzea batz besteko soldataren %60a izan dezan gutxienez.
- III. Oinetako eta jantzigintza industriak gehien kontzentratzen diren lekuetan, aholku juridikoa eman dezaten bulego sistema bat ezartzen laguntzea, langileak doainik lagundu ditzaten. Bulego hauek, giza eta lan eskubideak defendatzen dituzten erakundeek zuzendu beharko lituzkete.
- IV. Lan, giza eta emakumeen eskubideen aldeko kanpainien eta plan nazionalen alde egitea.
- V. Jurisdikzio nazionalen dauden oinetako markei, lan eta giza eskubideak errespetatzera behartzea. Baita kate suministro globaletan ere, eta kontuak emateko eskatu.

### EB

- I. Gutxieneko soldatari buruzko politika garatzea, Europar Gizarte Gutunak eta Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunak oinarrituta; oinarrizko maila bat ezartzea, gutxienez batz besteko estatuko soldataren %60an finkatuta.
- II. Zorrak dituzten herrialdeetan, maileguak jasotzeko, soldata gutxitzeko politiken aplikazioa ez eragitea.
- III. Merkataritza akordio eta kolaborazioak, eta EuropeAid laguntzak (adibidez, arropa eta oinetako lantegietan aire gidotua ezartzeko) lan legegaren eta giza eskubideen errespetuaz baldintzatutak egon behar dira.

### Markak

Enpresa eta giza eskubideei buruzko NBEren printzipio gidarien arabera, enpresa guztiek, beren tamaina eta kontestu geografikoa edonolokoa izanda ere, giza eskubideak errespetatu behar dituzte suministro kate osoan zehar. Garrantzitsua da giza eskubideen beharrezko eginbide (GEBE) prozesu integral bat ezartzea, giza eskubideetan izan ditzaketen eragin kaltegarriak identifikatzeko, sahiesteko, arintzeko, eta kontuak emateko. GEBEa integrala, jarraia eta gardena izan behar du. Auditoretzen mugak zeharkatzen duen prozesua da, eta erosleek ekoizpen zentruko lan baldintzen erantzunkizuna hartzea eskatzen du eta

ez enpreseen arteko lotura kontraktualeetara desbideratzea erantzunkizun hori. GEBEak lanaren eragina jasotzen duten pertsonetan (langileetan) jarri behar du arreta eta biztanleriaren aurrean egindako aktibitateei buruz kontuak eman behar izatea jaso behar du<sup>20</sup>. Kontestu honetatik abiatuta, txostena idatzi zuen taldeak hurrengo gai hauek nabarmendu zituen, bereziki garrantzitsuak ikertutako zonaldeentzat:

**Giza eskubideenganako eragin kaltegarriak identifikatzea.** Adibidez, soldata ezberdinak ordaintzen ez direla, generoaren araberako lan banaketa ematen ez dela, ezta sexu jazarpenik ez dagoela, bermatzea.

### Enpresen ohiturak egokitzea, giza eskubideen urraketak aurreikusteko eta gutxitzeko:

- Soldata duina: lehendabiziko pausua soldata igotzea, batz besteko soldataren %60a izateko (gutxieneko soldata igotzea, kosteak gardentasunez kalkulatzeko, langileria inplikatzeko soldata duin bat jasotzen duela bermatzeko oportunitateak, baita Gizarte Zerbitzuen kotizazioak, eta hornitzaileekin elkarlanean aritzea luzerako soldata duinak bermatzeko).
- Soldata sistemak: hornitzaileek destajuko lana uztea, horretarako enpresen arteko harremanak sakontzeko moduak bilatzea (entregatze epeak konprobatzea, ekoizpenaren planifikazioa, produktuen prezioen egitura eta asignazioa; eta epe luzerako konfidantzazko harremanak sortzea).
- Sindikatu askatasuna: sindikatuek lantegietara sartzea eta langileriarekin hitzegitea ahalbidetzea, eta langileei sindikatuetik jarrera irekia transmititzea.
- Gardentasuna: produktu guztien trazabilitatea bermatzea eta hornitzaileen zerrendak argitaratzea, baita Hobetze Pasiboko Erregimenean lan egiten duten azpikontratisten ere

### Gizarte eskubideenganako eragin kaltegarriak nola ekin zaien jakinaraztea publikoki.

Honako informazio hau publikatzea:

- Enpresak nola identifikatzen ditu, gutxitzen ditu eta konpontzen ditu lan eta giza eskubideen urraketak, ze lehentasunak ditu eta nola aztertzen duen beren eragina
- Soldata duinen aplikazioa eta lantegian duen eragina
- Hornitzaileen zerrenda (lehengaien hornitzaileak, zurrategiak bezala adibidez eta lehen mailako hornitzaileez gain baita hurrengo mailakoen zerrendak ere).



“AURREZKIRIK? EZIN DUGU GURE SOLDATATIK EZER AURREZTU. NIRE SENARRAK ALEMANIARA JOAN BEHAR IZAN ZUEN HILABETE BATZUK ERAIKUNTZAN LAN EGITERA, DIRU PIXKA BAT IRABAZTEKO, NEGUKO KALEFAKZIOA ORDAINTZEKO. HORIEK DIRA GURE AURREZKIAK”  
Emakumezko langile errumaniarra.

- 1 CBI Market Intelligence, Ministry of Foreign Affairs 2015: <https://www.cbi.eu/sites/default/files/trade-statistics-europe-footwear-2015.pdf>, 12.orr
- 2 Iturri ezberdinek inportazio/esportazio ekoizpen eta kontsumo estimazio ezberdinak aipatzen dituzte. Nahiz eta koherente izaten saiatu garen, desadostasunak egon daitezke.
- 3 Footwear Yearbook (WFY, 2015), [www.worldfootwear.com/store.asp?link=Store](http://www.worldfootwear.com/store.asp?link=Store), 5.orr
- 4 Footwear Yearbook (WFY, 2015), [www.worldfootwear.com/store.asp?link=Store](http://www.worldfootwear.com/store.asp?link=Store), 5.orr
- 5 Footwear Yearbook (WFY, 2015), [www.worldfootwear.com/store.asp?link=Store](http://www.worldfootwear.com/store.asp?link=Store), 7.orr; estimated total worldconsumption: 19.39 billion pairs of shoes
- 6 Footwear Yearbook (WFY, 2015), [www.worldfootwear.com/store.asp?link=Store](http://www.worldfootwear.com/store.asp?link=Store), 15.orr7 Kontsumo osoa: 3.300 milioi oinetako pare; Europako guztizko ekoizpena: 729 milioi oinetako pare= %22a; Ekoiztutako oinetakoen %90a gutxi gora behera European kontsumitzen dira=%19,88a
- 8 Giza eskubideei buruzko informazio gehio: <https://www.cleanclothes.org/Recursos/publicaciones/position-paper-onhuman-Rightsdue-diligence/view>
- 9 Hileko batz besteko soldata brutoa 2015ean ALL 46.829 eta netoa ALL 39.396. 60% =ALL 23.637 (INSTAT)
- 10 batz besteko soldata netoaren %60a 837 BAMEkoa da 2016ko martxotik aurrera
- 11 RS Union Confederation: [www.savezsindikat.ars.org/sindikalna\\_potrosacka\\_korpa.php](http://www.savezsindikat.ars.org/sindikalna_potrosacka_korpa.php). Eskuragai 2015/10/23 –an.
- 12 22.715 MKD-ren %60a, 2015ko abendua, [www.stat.gov.mk/PrikaziS-ooopstnie\\_En.aspx?Id=40&rbr=1921,13/3/2016](http://www.stat.gov.mk/PrikaziS-ooopstnie_En.aspx?Id=40&rbr=1921,13/3/2016)
- 13 Familien batz besteko gastuak 2014, [www.stat.gov.mk/OblastOpsto\\_Es.aspx?Id=13,13/3/2016](http://www.stat.gov.mk/OblastOpsto_Es.aspx?Id=13,13/3/2016)
- 14 neto kalkulua: <http://wynagrodzenia.pl/kalkulator-wynagrodzen/wynik>
- 15 <http://ekonsument.pl/materialy/pobierz/613>, 18.orr: Poloniako batz besteko soldata 2015ean: 3.899,78 PLN brutoa = 2.783,26 PLN netoa, netoaren %60a =1,669.95 PLN
- 16 [www.wageindicator.org/main/salary/minimumwage/romaia](http://www.wageindicator.org/main/salary/minimumwage/romaia), gutxieneko soldatan oinarritua 1.050 RON-ekoa 2016ko urtarrilaren 1ean, hurrengoia kendu eta gero: errentaren gaineko zerga: %16; gizarte kontribuzioak: %10,5; mediku kontribuzioak: %5,5; langabezi funtsa: %0,5; zerga eta kontribuzio osoak: %32,5, 2016/3/13
- 17 Batz besteko soldata brutoa 2015ean 1.758koa izan zen, batz besteko soldata netoa 1.257ekoa (%32,5 gutxiago). Batz besteko soldata netoaren %60a 754 RON-ekoa da.
- 18 Iraupenerako gutxieneko datu ofizialik gabe, 2014eko pertsona bakoitzeko batz besteko gastuak hartu ditugu konparatzeko: 834 RON; 4 pertsonako etxe batean: 3,335 RON: [Www.insse.ro/cms/files/statistici/comunicate/abf/ABF\\_I\\_r14.pdf](http://www.insse.ro/cms/files/statistici/comunicate/abf/ABF_I_r14.pdf)
- 19 2014ko batz besteko soldata: 858 EUR brutoak, <http://udaje.statistics.sk/statdat/Average%20monthly%20wages%20in%20economy%20of%20the%20SR%20%5Bpr0204qs%5D-en.xlsx>; 515 brutoak 467.86 netoak dira bi haur dituen pertsona batentzat
- 20 Giza Eskubideei buruzko informazio gehio: <https://www.cleanclothes.org/Recursos/publicaciones/position-paper-onhuman-Rightsdue-diligence/view>

## EGILEA

**Christa Luginbühl** (Bern Declaration/Arropa Garbia Suitza Kanpainia) | Dr **Bettina Musiolek** (Entwicklungspolitisches Netzwerk Sachsen/Arropa Garbia Kanpainia)

## IKERKETA

Albania: **Mirela Arqimandriti, Megi Llubani, Artemisa Ljarja** (Gender Alliance for Development Center) | Bosnia-Herzegovina: **Ante Juri'–Marijanovi', Jelena Bajic, Maja Kremenovic** (Omladinski komunikativni centar OKC) | Mazedonia: **Miranda Ramova, Marija Todorovska** (Association for action against violence and trafficking in human beings – “Open Gate – La Strada”) | Polonia: **Gra yna Latos, Joanna Szabu'ko** (Buy Responsibly Foundation Poland) | Errumania: **Corina Ajder** (investigadora independiente) | Eslovaquia: **Veronika Vlcková** (Slovak Centre for Communication and Development)

2016ko apirilean euskaraz **argitaratua** | Itziar Pérez Argomanezek (SETEM Nafarroa) **itzulia** | Alba Trepatek (SETEM Federazioa) **editatua** | Concepte Gràfic-ek **maketatua**



## ALDATU ZURE ZAPATAK

**ALDATU ZURE ZAPATAK** kanpiniaren konsorzioa

Europako 15 eta Asiako 3 erakundeek osatzen dute. Batzuk Arropa Garbia kanpiniarekin elkarlanean daude. Aldatu Zure Zapatak eta Arropa Garbia kanpiniak txosten hau egin dute elkarlanean, arropagintzan eta zapatagintzan ematen diren lan baldintzen eta giza eskubideen urraketek lotura handia dutela dakitelako.

Txosten hau Europar Batasunaren laguntza ekonomikoarekin egin da. Txosten honen edukien guztizko ardura Aldatu Zure Zapatak kanpiniak dauka eta ezin daiteke inolaz Europar Batasunaren iritzi bezaka hartu.



Setem

**Campaña Ropa Limpia**   
Clean Clothes Campaign